Deudas con entidades de crédito	(1.500.000)	1.500.000
3 Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko zorrak		
Deudas con empresas del grupo y asociadas		
4 Bestelako zorrak		
Otras Deudas		
11 Dibidenduen eta beste ondare-tresna batzuen ordainsarien ordainketak		
Pagos por dividendos y remuneraciones de otros instrumentos de patrimonio		
a) Dibidenduak		
Dividendos		
b) Beste ondare-tresna batzuen ordainsariak		
Remuneraciones de otros instrumentos de patrimonio		
12 Finantzaketa-jardueren diru-fluxuak		
Flujos de efectivo de las actividades de financiación	**1.700.150**	**1.975.878**
D) Kanbio-tasen aldaketen eragina		
Efecto de las variaciones de los tipos de cambio		
E) DIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/ MURRIZKETA GARBIA		
AUMENTO/DISMINUCIÓN NETA DEL EFECTIVO O EQUIVALENTES	**(181.857)**	**(3.231.729)**
Eskudirua edo baliokideak ekitaldiaren hasieran		
Efectivo o equivalentes al comienzo del ejercicio	1.649.133	4.880.861
Eskudirua edo baliokideak ekitaldiaren amaieran		
Efectivo o equivalentes al final del ejercicio	1.467.276	1.649.133

Langileen Plantila
Plantilla de Personal

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / *SOCIEDADES MERCANTILES FORALES*

Aparkabisa, AB / *Aparkabisa, S.A.*

Plazak / *Plazas* 2026	**Plaza zb./ *Nº plazas***			**Aurreik. zenbat. guzt. *Importe total prev.***	**Plaza zb./ Nº plazas *Efektiboak / Efectivas* (31/12/2026)**			**Itx. aurreik. zenbat. *Importe Prev. cierre***
	G/H	**E/M**	**Guzt./Tot.**		**G/H**	**E/M**	**Guzt./Tot.**	
Zuzendari nagusia / *Director General*		1,00	1,00	100.000,00		1,00	1,00	100.200,00
Zuzendari nagusiaren ondokoa / *Adjunto al Director General*	1,00		1,00	98.900,00	1,00		1,00	99.400,00
Kontabilitateko burua / *Jefe de Contabilidad*	1,00		1,00	60.000,00	0,83		0,83	53.066,00
Kalitate- eta segurtsun-kontroleko arduraduna/ *Encargado de Control de Calidad y Seguridad*	1,00		1,00	57.700,00	1,00		1,00	58.700,00
Mantentze-lanetako burua / *Jefe de Mantenimiento*	1,00		1,00	72.300,00	1,00		1,00	73.000,00
Mantentze-lanetako arduraduna / *Encargado de Mantenimiento*	1,00		1,00					
Aparkalekuko arduraduna / *Encargado de Parking*	1,00		1,00	60.500,00	1,00		1,00	60.300,00
Mantentze-lanetako ofiziala / *Oficial de Mantenimiento*	1,00		1,00	55.200,00	1,00		1,00	58.000,00
Biltegiko arduraduna / *Encargado de Almacén*	1,00		1,00	16.000,00	1,00		1,00	51.500,00
Zuzendaritzako idazkaria / *Secretaria de Dirección*		1,00	1,00	68.500,00		1,00	1,00	68.300,00
Zuzendaritzako idazkari albokoa / *Secretaria Adjunta de Dirección*		1,00	1,00	62.000,00		1,00	1,00	63.300,00
Administrazioko idazkaria / *Secretaria de Administración*		1,00	1,00	-		0,83	0,83	54.600,00
Kontabilitateko administraria / *Administrativo Contable*	1,00		1,00	43.300,00	0,17		0,17	6.134,00
Administraria / *Administrativo*	2,00	3,00	5,00	250.000,00	2,00	2,17	4,17	208.200,00
Administrari laguntzailea / *Auxiliar Administrativo*				-				-
Morroi espezialista / *Mozo especialista*	3,00		3,00	80.000,00	2,00		2,00	73.600,00
Kabina-kontrolatzailea / Controlador de Cabina				-				
Aparkalekuko/instalazio kontrolatzailea / *Controlador de Parking* /instalaciones	25,00	1,00	26,00	1.050.000,00	21,00	1,00	22,00	1.031.100,00
Mantentze-lanetako langilea / *Operario/a de mantenimiento*	1,00		1,00	39.200,00	1,00		1,00	40.500,00
LANGILE FINKOAK GUZTIRA / *TOTAL PERSONAL FIJO*	**40,00**	**8,00**	**48,00**	**2.113.600,00**	**33,00**	**7,00**	**40,00**	**2.099.900,00**

Plazak / *Plazas* 2027	**Plaza berriak *Plazas nuevas***			**Plaza zb./ *Nº plazas***			**Plaza zb./ Nº plazas *Efektiboak / Efectivas***			**Aurreik. zenbat. Importe total prev.**
	G/H	**E/M**	**Guzt./Tot.**	**G/H**	**E/M**	**Guzt./Tot.**	**G/H**	**E/M**	**Guzt./Tot.**	
Zuzendari nagusia / *Director General*					1,00	1,00				104.700,00
Zuzendari nagusiaren ondokoa / *Adjunto al Director General*				1,00		1,00				103.900,00
Kontabilitateko burua / *Jefe de Contabilidad*				1,00		1,00				64.600,00
Kalitate- eta segurtsun-kontroleko arduraduna/ *Encargado de Control de Calidad y Seguridad*				1,00		1,00				61.000,00
Mantentze-lanetako burua / *Jefe de Mantenimiento*				1,00		1,00				82.800,00
Instalazioen burua burua / Jefe de instalaciones	1			1,00		1,00				76.600,00
Mantentze-lanetako arduraduna / *Encargado de Mantenimiento*				1,00		1,00				
Aparkalekuko arduraduna / *Encargado de Parking*				1,00		1,00				62.600,00
Mantentze-lanetako ofiziala / *Oficial de Mantenimiento*				1,00		1,00				59.000,00
Biltegiko arduraduna / *Encargado de Almacén*	-1									
Zuzendaritzako idazkaria / *Secretaria de Dirección*					1,00	1,00				69.400,00
Zuzendaritzako idazkari albokoa / *Secretaria Adjunta de Dirección*					1,00	1,00				65.600,00
Administrazioko idazkaria / *Secretaria de Administración*					1,00	1,00				-
Kontabilitateko administraria / *Administrativo Contable*				1,00		1,00				44.600,00
Administraria / *Administrativo*				2,00	3,00	5,00				210.000,00
Administrari laguntzailea / *Auxiliar Administrativo*										
Morroi espezialista / *Mozo especialista*				3,00		3,00				77.300,00
Kabina-kontrolatzailea / Controlador de Cabina										
Aparkalekuko/instalazio kontrolatzailea / *Controlador de Parking* /instalaciones				25,00	1,00	26,00				1.050.000,00
Mantentze-lanetako langilea / *Operario/a de mantenimiento*				1,00		1,00				42.300,00
LANGILE FINKOAK GUZTIRA / *TOTAL PERSONAL FIJO*				**40,00**	**8,00**	**48,00**				**2.174.400,00**

BEHIN-BEHINEKOAK / *TEMPORALES* 2026	**Behin-behin. zb. *Nº de temporales***			**Aurreik. zenbat. guzt. *Importe total prev.***	**Behin-behin. zb. *Nº de temporales* (31/12/2026)**			**Itx. aurreik. zenbat. *Importe Prev. Cierre***
	G/H	**E/M**	**Guzt./Tot.**		**G/H**	**E/M**	**Guzt./Tot.**	
Aparkalekuko kontrolatzailea / Controlador de Parking	7,00	1,00	8,00	250.000,00	4,80	0,67	5,47	192.100,00
Biltegiko arduraduna / Encargado de Almacén	0,25		0,25	12.000,00	0,67		0,67	51.500,00
BEHIN-BEHIN. GUZTIRA / *TOTAL TEMPORALES*	**7,25**	**1**	**8,25**	**262.000,00**	**5,47**	**0,67**	**6,14**	**243.600,00**

BEHIN-BEHINEKOAK / *TEMPORALES* 2027	**Behin-behin. zb. *Nº de temporales***			**Aurreik. zenbat. guzt. *Importe total prev.***
	G/H	**E/M**	**Guzt./Tot.**	
Aparkalekuko kontrolatzailea / *Controlador de Parking*	5,00	1,00	6,00	210.000,00
Biltegiko arduraduna / Encargado de Almacén	0,50		0,50	25.000,00
Administraria / Administrativo	2,00		2,00	90.000,00
BEHIN-BEHIN. GUZTIRA / *TOTAL TEMPORALES*	**7,50**	**1,00**	**8,50**	**325.000,00**

Azpiegiturak, ABMP
Azpiegiturak, S.A.M.P.

Azpiegiturak, ABMP
Azpiegiturak, S.A.M.P.

Azpiegiturak, ABMP Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailera atxikitako foru-sozietate publikoa da eta bere sozietate-xedean honako jarduketa hauek sartzen dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduketa-eremuarekin lotutako azpiegitura- eta ekipamendu-obrak proiektatu, eraiki, kontserbatu eta ustiatzea.
- Negozio-zentroak sortu eta kudeatzea, enpresa-instalazioak urbanizatu eta egokitzea, eta azpiegitura eta ekipamendu publikoak hornitzea enplegua sortzen duten jarduketak garatzeko.
- Lurzorua erosi eta haren sustapen publikoa egitea, interes publikoko jarduketa ekonomikoetarako, industria eta zerbitzuen sektoreetarako; eta enpresak bilatzea, sozietateak sustatuko jarduketetan kokatzeko.
- Bizkaiko Lurralde Historikorako edo, hala badagokio, eskualde espezifikoetarako proiektu estrategikoak sustatzea, edozein eratako jarduketak garatuz eta era guztietako finantza-tresnak erabiliz.

Sozietatearen jarduketa-arlo nagusiak honela defini daitezke, laburbilduta:

- Enpresa-azpiegiturak kudeatzea, Bizkaiko lurraldean enpresen sorrera eta finkapena errazteko asmoz. Jarduketa hori bi jarduketa-mota nagusitan banatzen da:

    1. Pertsona ekintzaileentzako azpiegiturak sortzea.

Azpiegiturak, S.A.M.P. es una Sociedad Pública Foral adscrita al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, cuyo objeto social contempla las siguientes actividades:

- Proyectar, construir, conservar y explotar las obras de infraestructuras y equipamientos relacionados con el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Crear y gestionar centros de negocio, urbanizar y adecuar instalaciones empresariales y dotar de infraestructuras y equipamientos públicos para el desarrollo de actividades generadoras de empleo.
- Adquirir y realizar la promoción pública de suelo para actividades económicas de interés público para los sectores industrial y servicios, captación de empresas para su ubicación en las actuaciones promovidas por la sociedad.
- La promoción de proyectos estratégicos para el Territorio Histórico de Bizkaia o para comarcas específicas, mediante el desarrollo de cualquier tipo de actuación y la utilización de todo tipo de instrumentos financieros.

Las áreas principales de actividad de la sociedad pueden definirse de forma resumida de la siguiente manera:

- Gestión de infraestructuras empresariales, con el objeto de facilitar el asentamiento y creación de empresas en el territorio de Bizkaia. Esta actividad se divide en dos tipos principales de actividad:

    1. Creación de infraestructuras para personas emprendedoras.

2. Industriaren sektorerako lurzorua erosi eta sustatzea, finkatutako enpresak bertan kokatzeko azpiegiturak hornitu ahal izateko.

- Pertsona nagusientzako edo ezintasun-mota desberdinak dituzten pertsona-taldeentzako gizarte-ekipamenduak eraiki eta ustiatzea, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak aginduta.

- Foru-titulartasuneko kirol-azpiegiturak kudeatzea eta mantentzea.

- Etxebizitzara bideratutako aktibo higiezinen kudeaketa.

- Gainera, Azpiegiturak ABMPek, Bizkaiko Foru Aldundiaren berezko baliabide pertsonifikatua den aldetik, bere esku utzitako lanak egin beharko ditu dagokion enkarguaren bidez, enkargua ematen dion erakundeak finkatutako jarraibideen arabera.

Jarduketa-ildo nagusiak

1. Enpresa-azpiegiturak kudeatzea

1.a) Ekintzailetzarako azpiegiturak

Jarduketa-arlo honetan pertsona ekintzaile, enpresa, zentro eta erakundeentzat pentsatutako azpiegiturak sortzen dira, baldin eta horiek Bizkaiaren garapen iraunkor eta orekatuan lagunduko duen enpresa-proiektua badaukate. Hori horrela, sozietate berrien sorrera babestuko da eta lehentasuna emango zaie kudeaketan eduki berritzaile altua (bai teknologia-aldetik, bai kudeaketa-sistemetan) dutenei. Ardatz horietan eutsiko da Bizkaiko Lurralde Historikoko garapen ekonomikoa, geroz eta globalizatuagoa eta lehiakorragoa den mundu honetan.

2. Promoción y adquisición de suelo para el sector industrial, dirigido a dotarlo de infraestructuras para el asentamiento de empresas ya consolidadas.

- Construcción y explotación de equipamientos sociales, destinados a personas mayores o a colectivos de personas con distintos tipos de discapacidades, mediante encargos del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

- Gestión y mantenimiento de infraestructuras deportivas de titularidad foral.

- Gestión de activos inmobiliarios destinados a vivienda.

- Además, Azpiegiturak S.A.M.P., como medio propio personificado de la Diputación Foral de Bizkaia, vendrá obligada a realizar los trabajos que ésta le confíe por medio del correspondiente encargo, de acuerdo a las instrucciones fijadas por la entidad que le confiere el encargo.

Líneas generales de actuación

1. Gestión de infraestructuras empresariales

1.a) Infraestructuras para el emprendimiento

Esta rama de la actividad se encarga de la creación de infraestructuras pensadas para personas emprendedoras, empresas, centros o entidades que tengan un proyecto empresarial que contribuya al desarrollo sostenible y equilibrado de Bizkaia, apoyando la creación de nuevas Sociedades, primando aquellas que en su gestión posean un alto contenido innovador, tanto en lo tecnológico como en sus sistemas de gestión. Ejes estos en los que, en un mundo cada vez más globalizado y competitivo, se sustente el desarrollo económico del Territorio Histórico de Bizkaia.

Azpiegiturak, ABMP
Azpiegiturak, S.A.M.P.

Gainera, elkartegietan kokatutako espazioak ematen dizkie ekimen eta ideiekin beren lehen urratsak ematen dituzten sustatzaileei. Hori horrela, beren bideragarritasuna aztertzen da, beren proiektuak garatzen dira eta gure lurraldeko enpresa-sarea hedatuko duten enpresak sortzea helburu duen ekimenak garatu gabe gelditzea saihesten da.

Elkartegiak programa, 1985ean sortu zenetik, eratu berri diren enpresa-ekimenen eta lehendik zeudenen azpiegiturak diseinatu, eraiki eta mantentzeaz arduratu da. Horretarako, enpresok beren jatorrian iraun eta garatzeko bultzada eman du eta administrazio ezberdinekin aritu da lankidetzan, enpresak beren kabuz bilatzeko gai ez diren eskualdeei laguntza ematen dieten azpiegiturak aztertu eta kokatzeko orduan.

Azpiegiturak, ABMP sozietateak Elkartegien Sarearen bidez, tamaina desberdinetako moduluak eskaintzen dizkie enpresei, bai industria arlokoei bai zerbitzu arlokoei, baldintza ekonomiko onenetan. Horretarako, Programaren Dekretu arautzailean definitu eta ezarritako irizpide eta baldintzetan oinarritzen da. Gaur egun, eraikin modernoak eta teknologikoki aurreratuak eraikitzen ditu, bilera-gelak, wifi zerbitzua eta enpresen jarduera garatzeko beharrezkoak diren bestelako ekipamenduak dituztenak.

Elkartegien egungo okupazioa gutxi gorabehera %77 da bai industria-moduluetan, bai bulego-moduluetan.

2026. urtean amaitu dira 2025ean hasitako Sondikako Elkartegiaren modernizazio eta hobekuntza-integraleko obrak, Elkartegien Sarea berritzeko eta eguneratzeko planaren esparruan.

También facilita espacios ubicados en los Elkartegiak a todo aquel promotor o promotora que, con iniciativa e ideas, den sus primeros pasos, explorando la viabilidad y desarrollando su proyecto, tratando de conseguir que ninguna iniciativa, encaminada a la creación de empresas que amplíen el tejido empresarial de nuestro Territorio, quede sin desarrollar.

El programa Elkartegiak desde su creación en 1985, se ha dedicado al diseño, construcción y mantenimiento de infraestructuras, que albergan tanto iniciativas empresariales de nueva creación, como otras ya existentes consolidando de esta forma su permanencia y desarrollo en su lugar de origen, colaborando, además, con las distintas administraciones en el estudio y ubicación de infraestructuras que favorezcan aquellas comarcas que por sí mismas no sean capaces de ser tractoras en la captación de empresas.

Azpiegiturak, S.A.M.P. a través de la Red Elkartegiak, ofrece módulos de diferentes tamaños a empresas, tanto industriales, como de servicios, en las mejores condiciones económicas, basándose en criterios y requisitos definidos y establecidos en el Decreto regulador del Programa. En la actualidad construye edificios modernos y avanzados tecnológicamente, con salas de reuniones, wifi, etc.

La ocupación actual en el conjunto de los elkartegis es aproximadamente de un 77% de los módulos, tanto industriales como de oficinas.

En el año 2026 han culminado las obras de modernización y mejora integral del Elkartegi de Sondika, iniciadas en 2025, en el marco del plan de renovación y actualización de la Red de Elkartegiak.

Azpiegiturak, ABMP
Azpiegiturak, S.A.M.P.

Jarduketa hau azpiegiturak egokitzeko, modernizatzeko eta hobetzeko estrategia orokor baten barruan kokatzen da. Estrategia horren helburua da azpiegituren kontserbazio-egoera ezin hobea bermatzea, haien prestazioak handitzea eta egungo erabilera-, segurtasun- eta funtzionaltasun-beharretara egokitzea.

Berritze-plan honen barruan garatutako jarduketa guztiek, oro har, 2,9 milioi euro inguruko inbertsioa ekarri dute.

2027. urterako eta hurrengo urtetarako aurreikusita dago Elkartegien Sarearen berritze, hobekuntza eta modernizazio prozesuarekin jarraitzea, gutxi gorabehera 3.000.000 euroko inbertsioa eginez. Helburua da Elkartegien Sarea osatzen duten espazioak egokitzea eta eraldatzea, enpresek gaur egun dituzten behar eta eskaerei erantzuteko gai izango den sare moderno, berritu eta eguneratu bihurtuz.

Era berean, 2026ko lehen seihilekoan Ispasterko Elkartegia eraikitzeko obrak hasi dira, eta gaur egun exekuzio-fasean daude, Ispasterko udalerrian.

2027ko ekitaldian aurreikusita dago gutxi gorabehera 4 milioi euroko inbertsio metatua gauzatzea, ekitaldi horretarako programatutako jarduketak exekutatzeari lotuta. Obra guztiak 2028ko lehen seihilekoan amaitzea aurreikusten da. Une horretan amaituko da lurraldeari eta Lea-Artibai eskualdeari instalazio moderno eta egungo eskakizun funtzional, tekniko eta segurtasunekoetara egokituak eskaintzea helburu duen jarduketa estrategikoa.

La actuación se enmarca en una estrategia global orientada a la adecuación, modernización y mejora de las infraestructuras, con el objetivo de garantizar su óptimo estado de conservación, incrementar sus prestaciones y adaptarlas a las actuales necesidades de uso, seguridad y funcionalidad.

El conjunto de las actuaciones desarrolladas dentro de este plan de renovación ha supuesto una inversión global de aproximadamente 2,9 millones de euros.

Para el año 2027 y sucesivos está previsto continuar con la renovación, mejora y modernización de los elkartegiak, dotándonos con una inversión de aproximadamente 3.000.000€, tratando de adecuar los espacios que conforman la Red de elkartegiak, transformándolos en una red moderna y actualizada, acorde a las peticiones de las empresas hoy en día.

Asimismo, durante el primer semestre de 2026 se han iniciado las obras de construcción del Elkartegi de Ispaster, actualmente en fase de ejecución, en el término municipal de Ispaster.

En el ejercicio 2027 está previsto materializar una inversión acumulada de aproximadamente 4 millones de euros, correspondiente a la ejecución de las actuaciones programadas para este ejercicio. La finalización del conjunto de las obras está prevista para el primer semestre de 2028, momento en el que culminará una actuación estratégica destinada a dotar al territorio y a la comarca de Lea Artibai de unas instalaciones modernas y adaptadas a las actuales exigencias funcionales, técnicas y de seguridad.

Azpiegiturak, ABMP
Azpiegiturak, S.A.M.P.

Azpiegiturak ABMPek, Bizkaiko Foru Aldundiaren enkarguz, energiaren eremuan TRL garaietan laguntzeko I+G+b Zentro bat (Energy Intelligence Center) eraikitzeko eta ekipatzeko ekintzetan parte hartzen jarraitzne du, Abanto Udalerrian. Aipatutako Zentroa Euskadiko energia alorreko enpresen lehiakortasuna sustatzeko zentroa da, adimen lehiakorrean, garapen teknologikoan, ezagutzaren sorkuntzan eta merkatu aurreragotuen sarbidean oinarrituta; hori guztia, lankidetzan, konpromiso publiko-pribatuan eta Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren ekosistemarekiko elkarlanean oinarrituta.

2026ko uztailaren 26an, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Azpiegiturak, S.A.M.P.ren artean hitzarmen bat sinatu zen, EIC – Energy Intelligence Center-en eFuelen eta erregai berriztagarrien probaketarako Living Lab bat instalatzeko beharrezkoak diren makineria eskuratzeko eta ekipamendu zein zerbitzuen egokitzapena egiteko. Enkarguaren zenbateko osoa 5.000.000 eurokoa da, eta inbertsio hori 2027ko ekitalditik aurrera gauzatzea aurreikusten da.

Horrez gain, EIC-ren handitzearekin jarraitzea aurreikusten da, eta, horretarako, 2027. urtean zehar beharrezko azterlanak egiten hasiko dira.

Bestalde, Sozietateak Bilbon Ekintzailetzari Laguntzeko Nazioarteko Zentroa ezartzen parte hartzen du, ekintzailetzaren euskal ekosistema indartzeko, baita Bizkaiko *startup*ei zerbitzu berriak emateko ere, horrela nazioarte mailako finantziazioa, bizkortzea, kideak eta kontaktuak eskuratzen lagunduz. Sozietateak honela parte hartuko du: ekimen honen garapenerako beharrezkoak diren espazioak (Bizkaia Dorrean daudenak) egokituz, eta gune horiek alokairu-erregimenean eskuragarri jarriz.

Azpiegiturak continua participando, por encargo de Diputación Foral de Bizkaia, en las actuaciones para la construcción y equipamiento de un Centro de I+D+i colaborativa en TRLs altos en el ámbito de la Energía (Energy Intelligence Center), en el municipio de Abanto, que se conforma como un centro para el impulso de la competitividad de las empresas del sector de la energía de Euskadi basado en la inteligencia competitiva, el desarrollo tecnológico, la generación de conocimiento y el acceso a los mercados más avanzados, todo ello apoyado en la cooperación, el compromiso público-privado y la colaboración con el ecosistema de Ciencia, Tecnología e Innovación de Euskadi.

El 26 de julio de 2026, se firmó un convenio entre Diputación Foral de Bizkaia y Azpiegiturak, S.A.M.P. para la adquisición de maquinaria y la adecuación de equipamiento y servicios para la instalación de un Living Lab de testeo de eFuels y combustibles renovables en EIC – Energy Intelligence Center. El importe total del encargo asciende a 5.000.000 de euros que están previstos ejecutar a partir del ejercicio 2027.

Además, se prevé continuar con la ampliación del EIC para lo que a lo largo del año 2027 se empezará con los estudios oportunos.

Por otro lado, la Sociedad participa en la implantación en Bilbao de un Centro Internacional de Apoyo al Emprendimiento, destinado a potenciar el ecosistema vasco de emprendimiento y a prestar nuevos servicios a las startups vizcaínas, facilitando su acceso a la financiación, aceleración, partners y contactos a nivel internacional. Esta participación se concreta en la adecuación de los espacios requeridos para el desarrollo de esta actuación, situados en la Torre Bizkaia, así como la puesta a disposición de dichos espacios en régimen de arrendamiento.

2027. urtean zehar, 2026an hasitako eraikinaren 19. solairuan showroom murgiltzailelaren exekuzio eta mantentze lanekin jarraituko da. Horretarako, 1.860.000 euroko inbertsioa aurreikusten da. Showroom murgiltzaile digitala da, bisitariei exibitutako edukia modu interaktibo eta sentsorialean esperimentatzeko aukera emango diena, eta lurraldeko korporazio, unibertsitate eta eragile sozioekonomikoentzako erreferentzia-gune bihurtu nahi du, baita Bizkaian interesa duten eragile instituzionalentzako, korporazioentzako, start-upentzako eta kanpoko profesionalentzako harrera ere.

Durante 2027 se continuará con los trabajos de ejecución y mantenimiento de un Showroom inmersivo en la planta 19 del edificio, iniciados a lo largo de 2026, con una inversión prevista para 2027 de 1.860.000 euros. Se trata de un showroom inmersivo digital que permitirá a los visitantes experimentar de manera interactiva y sensorial el contenido exhibido, y aspira a convertirse en espacio de referencia para corporaciones, universidades y agentes socioeconómicos del Territorio, así como de recepción y acogida para agentes institucionales, corporaciones, start-ups, y profesionales del exterior interesados por Bizkaia.

Aipatutako elkartegiez gain, sozietateak beste eraikin batzuk ditu: “Centro de Tecnologías Aeronáuticas” izenekoa, Zamudioko Teknologia Parkean. Bilbon, Arana 8 eraikinean, BEAZ merkataritzako foru-sozietatea kokatzen da, eta Getxon, Biscaytik proiektuaren egoitza. Azken eraikin horretan dago izen bereko fundazioa, eta horren asmoa da Bizkaia erreferente bihurtzea, Administrazioan informazio arloko teknologien aplikazioari dagokionez.

La Sociedad también cuenta con otros inmuebles que albergan: el Centro de Tecnologías Aeronáuticas en el Parque Tecnológico de Zamudio; en Bilbao, en el Edificio Arana 8, se ubican las Sociedades Mercantiles Forales B.E.A.Z y Seed Capital; y en Getxo la sede del proyecto Biscaytik. Este último edificio, en el que se localiza la fundación del mismo nombre, pretende convertir a Bizkaia en referente de la aplicación de las tecnologías de la información en la Administración.

1.b) Industriaren sektorerako lurzorua erosi eta sustatzea

1.b) Promoción y adquisición de suelo para sector industrial

Lursailak erostea.-

Industriaren sektorerako lurzorua sustatu eta erostea, industria-poligonoak urbanizatu eta kudeatzea, eta jarduketak eta enpresak identifikatu eta aurkitzea gero kokatzeko, Sozietatearen xedean sartzen diren jarduketak dira.

Adquisición de terrenos. -

La promoción y adquisición de suelo para el sector industrial, urbanización y gestión de polígonos industriales, y la identificación y localización de actuaciones y empresas para su ubicación, son actividades dimanantes del propio objeto social de la Sociedad.

Industria-sustapenak.-

Toki-erakundeekin lankidetzan, enplegua sortu eta eragiten duten jarduketak garatzen ditugu eta horiek industria-sektoreen garapena bultzatzen dute.

Promociones industriales. -

En colaboración con las entidades locales, desarrollamos actuaciones tractoras y generadoras de empleo que culminan con el desarrollo de sectores industriales.

Azpiegiturak, ABMPek, halaber, jarduera ekonomikoko guneen tokiko kudeaketa eta garapena helburu soziala duten izaera publikoko bestelako sozietateetan parte hartzen du.

2. Gizarte-ekipamenduak eraiki eta kudeatzea

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko gizarte-behar gero eta handiagoei erantzuteko duen etengabeko kezkak jarduera-bolumen handia eskatzen du adineko pertsonen arretaren arloan. Premia horri erantzunez, AZPIEGITURAKek gaur egun 15 egoitzaren kudeaketan parte hartzen du; guztira 1.865 plaza dituzte. Era berean, 28 eguneko zentro kudeatzen dira, guztira 1.045 plazarekin. Egoitzen batez besteko okupazio-maila %87koa da, eta eguneko zentroena %90ekoa.

Horrez gain, etxean geratzeko laguntza-zerbitzua eskaintzen ari diren 11 zentroetan (etxeTIC) gutxi gorabehera 2500 etxe aktibo daude gaur egun, eta horietan laguntzak ematen dira, aurrez aurre zein telematikoki.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundia aurrera egiten ari da egoitza-zentroetan gehienez 25 pertsonako bizikidetza-unitateak garatzen ari da, arreta pertsonalizatuagoa izan dadin, etxekoen unitatearen antzekoena izan dadin, komunitateari irekita egon daitezen, eta bizi-proiektua garatzeko laguntza behar duten pertsonen premia, nahi eta itxaropenei erantzuna eman diezaieten.

Era berean, gizarte-azpiegituren eraikuntzaren arloan, aipatutako adinekoentzako plazak hartzen dituzten azpiegituren proiektua, eraikuntza eta ekipamendua kudeatzeaz gain, AZPIEGITURAKek desgaitasuna duten pertsonentzako eta beste kolektibo batzuentzako hainbat egoitza eta eguneko zentroen proiektua prestatu, eraikinak egin eta horien ekipamendua egin du.

Azpiegiturak, S.A.M.P. participa además en otras sociedades de carácter público, cuyo objeto social es la gestión y desarrollo local de zonas de actividad económica.

2. Construcción y gestión de equipamientos sociales

La constante preocupación de la Diputación Foral de Bizkaia por dar respuesta a las crecientes necesidades sociales del Territorio Histórico de Bizkaia exige un volumen de actividad importante en el ámbito de la atención a Personas Mayores. Atendiendo a esta demanda, AZPIEGITURAK participa en la actualidad en la gestión de 15 residencias, que implican 1865 plazas y 28 centros de día con un total 1045 plazas. Con un nivel de ocupación medio en torno al 87% y 90%, respectivamente.

Adicionalmente, en los 11 centros en los que se está ofreciendo el servicio de apoyo a la permanencia en el hogar (etxeTIC) hay aproximadamente 2500 hogares activos, en los que se prestan apoyos tanto de forma presencial como telemática.

Además, la Diputación Foral de Bizkaia está avanzando en el desarrollo de unidades convivenciales en los centros residenciales, que favorezcan una atención más personalizada, que sean lo más parecido al hogar, abiertas a la comunidad, y que den respuesta a las diversas necesidades, deseos y expectativas de las personas que requieren de apoyos para desarrollar su proyecto de vida.

Asimismo, en el campo de la edificación de infraestructuras sociales, además de gestionar el proyecto, construcción y equipamiento de las infraestructuras que albergan las plazas para personas mayores señaladas, AZPIEGITURAK ha realizado el proyecto, construcción y equipamiento de varias residencias y centros de día para personas con discapacidad y otros colectivos.

Sozietatean datorren ekitaldietarako aurreikusitako jarduketak hainbat kategoriatan sailka daitezke. Hona hemen horien laburpena:

A.- Gizarte-azpiegituretarako proiektuak idatzi, eraikinak egin eta ekipamenduz betetzea

Sozietateak Gizarte Ekintza Sailaren aginduak jasotzen ditu, gizarte-azpiegiturak eraiki edo/eta egokitzeko, bai pertsona nagusientzat, bai Sailaren jarduketa-eremuan sartzen diren beste talde batzuentzat.

A.1- Pertsona nagusientzako azpiegiturak

Baliabideak pertsona nagusientzako arreta eskariari egokitzeko AZPIEGITURAKek mendekotasun egoeran dauden pertsona nagusiei zuzendutako ekipamenduak eraikitzeko aginduak jasotzen ditu.

- Azpiegiturak Markina-Xemeingo udalerrian izaera sozialeko ekipamendu publiko misto bat eraikitzea aurreikusi du (etxeTIC eguneko zentroa eta desgaitasuna duten pertsonentzako apartamentuak). 4.500.000 euroko inbertsioa aurreikusi da. 2024an hirigintza-aldaketak egiteko izapideak hasi ziren, eta eraikuntza-lanak 2027an hastea aurreikusten da..

- Era berean, Abadiñon gizarte-izaerako ekipamendu bat eraikitzea aurreikusi da. Bertan, mendekotasuna duten pertsonentzako egoitza-unitateko 60 plaza eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako 40 egoitza-plaza (bizikidetza-unitateetan) egongo dira. Azkenik, eguneko zentro bat izango du, desgaitasuna duten pertsonentzako 25 plazarekin. Exekuzio-aldia lau urtekoa izango dela kalkulatu da. Lizitazio-fasean dago bideragarritasun-azterlana eta oinarrizko proiektuak eta gauzatze-proiektuak; beraz, 2027an hasiko da proiektuaren azterketa- eta diseinu-fasea.

La actividad prevista de la Sociedad para los próximos ejercicios puede clasificarse en diferentes categorías, que se resumen como sigue:

A.- Encargos para proyectar, construir y equipar infraestructuras sociales

La Sociedad recibe encargos del Departamento de Acción Social para edificar y/o acondicionar infraestructuras sociales, destinadas tanto a personas mayores como a diversos colectivos dentro del ámbito de actuación del Departamento.

A.1- Infraestructuras para Personas Mayores

Con el objetivo de adecuar los recursos a la demanda de atención a personas mayores, AZPIEGITURAK recibe encargos para la construcción de equipamientos destinados a personas mayores en situación de dependencia.

- Azpiegiturak tiene previsto la construcción de un equipamiento público mixto de carácter social en el municipio de Markina-Xemein (centro de día etxeTIC y apartamentos para personas con discapacidad). Se prevé una inversión de 4.500.000 euros. En 2024 se iniciaron los trámites para los cambios urbanísticos, mientras que el inicio de las obras de construcción está previsto en 2027.

- Así mismo, está prevista la construcción de un equipamiento de carácter social en Abadiño, que dispondrá de 60 plazas de unidades convivenciales de residencia para personas dependientes, además de 40 plazas residenciales (en unidades convivenciales) destinadas a personas con enfermedad mental. Por último, contará con un centro de día con 25 plazas para personas con discapacidad. El periodo total de ejecución se ha estimado en cuatro años. Se encuentra en fase de licitación el estudio de viabilidad y proyectos básicos y de ejecución, por lo que en 2027 se iniciará la fase de estudio y diseño del proyecto.

- Azpiegiturak jarduerak hasi ditu Zorrozgoiti (Bilbo) eta Truiuondo (Zamudio) egoitzetan, bizikidetza-unitateen eredu berri horretara egokitzeko. Zorrozgoiti egoitzak bi bizikidetza-2026. urteaz geroztik ditu, bakoitza 22 egoiliarrekoa, eta guztira 140tan mantenduko da plaza-kopurua. Truiuondo egoitzan, berriz, plaza guztiak 6 bizikidetza-unitatetan berrantolatu dira, guztira 122 egoiliar hartzeko gaitasunarekin.

- Bizikidetza-unitate bihurtzeko obrak egoitza bakoitzaren egoerara egokitzen dira kasu guztietan, egoiliarren eguneroko bizitzan ahalik eta eragin txikiena izan dadin bermatuz.

- 2021ean, belaunaldien arteko egoitza bat eraikitzeko jarduketak hasi ziren, Gizarte Ekintza Sailaren enkarguz eta Getxoko Udalarekin lankidetzan. Egoitza horretan, adinekoentzako 100 egoitza-plaza eta gazteentzako 40 gizarte-apartamentu egongo dira. Egoitza eraikitzeko aurreikusitako inbertsioa, guztira, 13.106.914 eurokoa da, eta 2027ko hasieran abian jartzea aurreikusten da, obrak 2026an amaitu ondoren.

- Azpiegiturak ha llevado cabo actuaciones en las residencias Zorrozgoiti (Bilbao) y Truiuondo (Zamudio) para adaptarlas a este nuevo modelo de unidades convivenciales. La residencia Zorrozgoiti cuenta desde este año 2026 con dos unidades convivenciales de 22 residentes cada una, manteniéndose en 140 el número total de plazas, mientras que en la residencia Truiuondo todas las plazas se han reconvertido en 6 unidades convivenciales, con un total de 122 residentes.

- La ejecución de las obras de transformación en unidades convivenciales se adapta en todos los casos a la situación de cada residencia, garantizando que la vida cotidiana de las personas residentes se vea mínimamente afectada por las mismas.

- En 2021 se iniciaron las actuaciones, por encargo del Departamento de Acción Social y en colaboración con el Ayuntamiento de Getxo, para la construcción de una residencia intergeneracional, en la que convivirán 100 plazas de residencia para personas mayores y 40 apartamentos sociales destinados a jóvenes. La inversión total prevista para la residencia asciende a 13.106.914 euros, y está prevista su puesta en marcha al inicio de 2027, una vez finalizadas las obras en 2026.

B.- Ustiapena

B.1.- Besteren laguntza behar duten pertsona nagusientzako gizarte-azpiegiturak ustiatzea

Sozietateak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eskatuta, besteren laguntza behar duten pertsonen eguneko zentroetan eta egoitzetan plazak kudeatzeko zerbitzuak ematen ditu, enpresa espezializatuei zerbitzua esleituta. Egun kudeatutako plazak eta plaza berrien aurreikuspena honako hauek dira:

B.- Explotación

B.1.- Explotación de infraestructuras sociales para Personas Mayores Asistidas

La Sociedad realiza, a encomienda del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, la prestación de servicios de gestión de plazas de centros de día y residencias para personas mayores asistidas, mediante la adjudicación del servicio a empresas especializadas.

Egun kudeatutako mota ezberdinetako plazak eta plaza berrien aurreikuspena honako hauek dira:

B.1.1- Pertsona nagusientzako eguneko zentroen ustiapena

2027. urtean, eguneko zentro hauek ustiatzen jarraitu nahi da:

- Plazakoetxe (Galdakao) San Adrián, Otxarkoaga, -Isozaki Atea(Bilbao), Aiboa (Getxo) y Ormabarrieta (Bermeo.).

B.1.2- Pertsona nagusientzako eguneko zentroen ustiapena, etxeTIC eredua.

Egun, etxeTIC ereduarekin ustiatzeari ekin zaio eguneko zentro hauetan:

- Estartexe (Leioa), Sestao Berria (Sestao), Ugaogane (Ugao – Miraballes), Etxaniz, Santutxu (Bilbao), Bizigura (Abanto y Zierbena), Ondarroa (Ondarroa), Mungia (Mungia), Basauri (Basauri),Bizipoz-Nerbioi (Etxebarri) y Zalla (Zalla).

B.1.3.- Pertsona nagusientzako egoitzen eta eguneko zentrodun egoitzen ustiapena

2027. urtean, gizarte ekipamendu hauek ustiatuko dira:

a. Egoitzak:

Residencia Larrabarren (Sondika), Marcelo-Gangoiti (Muskiz) Albiz-Santiago Llanos (Sestao), Jose Maria Azkuna (Amorebieta)

Gainera, 2027an Getxoko Belaunaldien arteko Zentroa jarriko da martxan. 100 egoitza-plaza izango ditu, bizikidetza-unitateen ereduaren barruan.

Las plazas de diferentes tipos gestionadas en la actualidad y la previsión de nuevas plazas se detallan a continuación:

B.1.1- Explotación de Centros de Día para Personas Mayores

Durante 2027 se prevé continuar la explotación de los siguientes Centros de Día:

- Plazakoetxe (Galdakao) San Adrián, Otxarkoaga, -Isozaki Atea(Bilbao), Aiboa (Getxo) y Ormabarrieta (Bermeo.).

B.1.2- Explotación de Centros de Día para Personas Mayores modelo etxeTIC

Actualmente se encuentran en funcionamiento en los siguientes Centros de Día con el modelo etxeTIC:

- Estartexe (Leioa), Sestao Berria (Sestao), Ugaogane (Ugao – Miraballes), Etxaniz, Santutxu (Bilbao), Bizigura (Abanto y Zierbena), Ondarroa (Ondarroa), Mungia (Mungia), Basauri (Basauri),Bizipoz-Nerbioi (Etxebarri) y Zalla (Zalla).

B.1.3.- Explotación de Residencias y Residencias con Centro de Día para Personas Mayores

Durante 2027 estarán en explotación los siguientes equipamientos:

a. Residencias:

Residencia Larrabarren (Sondika), Marcelo-Gangoiti (Muskiz) Albiz-Santiago Llanos (Sestao), Jose Maria Azkuna (Amorebieta).

Además, durante 2027 se pondrá en marcha el Centro Intergeneracional de Getxo, que contará con 100 plazas de residencia, dentro del modelo de unidades convivenciales.

b. Eguneko zentrodun egoitzak

Joxe Miel Barandiaran Egoitza eta Eguneko Zentroa (Durango), Txurdinagabarriko Egoitza eta Eguneko Zentroa, Gazteluondoko Egoitza eta Eguneko Zentroa, Bilbozar Egoitza eta Eguneko Zentroa, Zorrozgoitiko Egoitza eta Eguneko Zentroa (Bilbo), Bizkotxaldeko Egoitza eta Eguneko Zentroa (Basauri), Otxartagako Egoitza eta Eguneko Zentroa, (Ortuella)Truiuondoko Egoitza eta Eguneko Zentroa (Zamudio), Abeletxeko Egoitza eta Eguneko Zentroa (Ermua), Las Laceras Egoitza eta Eguneko Zentroa (Balmaseda) , Arandia Egoitza eta Eguneko Zentroa (Arrigorriaga)

b. Residencias con centro de día:

Residencia con Centro de Día Joxe Miel Barandiaran (Durango) Residencia con Centro de Día en Txurdinagabarri, Residencia con Centro de Día Gazteluondo, Residencia con Centro de Día Bilbozar, Residencia con Centro de Día Zorrozgoiti (Bilbao) Residencia con Centro de Día Bizkotxalde (Basauri), Residencia con Centro de Día Otxartaga (Ortuella), Residencia con Centro de Día Truiuondo (Zamudio), , Residencia con Centro de Día Abeletxe (Ermua), Residencia con Centro de Día Las Laceras (Balmaseda), Residencia con Centro de Día Arandia (Arrigorriaga).

B.1.4.- Esparru-Hitzarmenak

2014ko irailean Gizarte Ekintza Sailarekin hitzarmen markoa sinatu zen, Etxebizitzaren Arloan Jarduteko Foru Planeko etxebizitzak (Bizkaiko hainbat udalerritan) doan lagatzeko asmoz helburu sozialetarako.

Hitzarmen marko honen barruan, Azpiegiturak, ABMPek Gueñesen kokaturiko 5 etxebizitza laga zituen, minusbaliotasuna duten pertsonei zuzenduta.

B.1.4.- Convenios Marco

En septiembre de 2014 fue suscrito, con el Departamento de Acción Social, un Convenio Marco por el que regula la cesión gratuita de viviendas del Plan Foral de Actuación en Vivienda, ubicadas en diferentes municipios de Bizkaia, con destino a su uso con fines sociales.

Dentro de este acuerdo marco, Azpiegiturak mantiene cedidas 5 viviendas ubicadas en Güeñes, destinadas a personas con discapacidad.

Kirol-azpiegiturak eraiki eta kudeatzea

Sozietateak, bere ondarean, bi kirol instalazio ditu eta horien kudeaketa ustiapen horietan espezializatuak diren izaki pribatuekiko kontratuen bidez egiten da. 2027ean jarduera horiekin jarraitzea aurreikusi da, ondoko xehetasun hauen arabera:

Construcción y gestión de infraestructuras deportivas

La Sociedad tiene en su patrimonio dos instalaciones deportivas cuya gestión realiza a través de contratos con entidades privadas especializadas en su explotación. Durante 2027 se prevé continuar dicha actividad, según se detalla a continuación:

Pilotalekuen eraikina eta Kirol Etxea: Instalazio hau 2011 urtetik abian dago, eta bertan oso garrantzitsuak diren ekitaldi ezberdinak egin dira, bereziki pilotaren arloan. 2027 urterako, aurreko ekitaldietan bezala, jardueren egutegi garrantzitsua aurreikusi da, Bizkaian pilotaren arloa berpizteko balioko dutenak. Eraikinean, halaber, Bizkaiko kirol federazioetako askoren egoitzak daude.

2027an zehar, 200.000 euro bideratuko dira Frontoien Eraikineko eta Kirol Etxeko konponketa- eta mantentze-lanetara.

Meaztegi Golf kirola egiteko erreferente gisa sendotu nahi da, eta gazteen artean kirol horren praktika bultzatu. Horretarako, zenbait jarduera eta inbertsio egiten ari dira, erabiltzaileek golfa egiteko baldintzak hobetzeko

Hori lortzeko, 2027ko ekitaldian instalazioak hobetzeko eta makinak berritzeko hainbat obra egingo dira. 700.000 euroko inbertsioa aurreikusten da.

– Etxebizitza

Sozietateak etxebizitza kudeatzeko jarduera garrantzitsua du gaur egun, eta gogor jardun du iraganean etxebizitzaren sustapenean; guztira, zuzenean 880 etxebizitza saldu ditu, eta beste 343 kooperatiben bitartez. Jardun hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Udalen lankidetzaz egin da.

Egungo egoera ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, eta alokairuzko etxebizitzak duen eskaria ikusita, etxebizitzak erosteko aukeradun errentamendu modalitatearen bidez eskuratzeko aukera sortuko da, edo sustapen jakin batzuetan errentamendu hutsaren bidez.

Edificio de frontones y Kirol Etxea: Esta instalación, en funcionamiento desde 2011, ha acogido eventos de gran importancia de diversa índole, principalmente en el mundo de la pelota. Para 2027 está previsto, como en los ejercicios anteriores, un importante calendario de actividades, que revitalizarán el deporte de la pelota en Bizkaia. El edificio alberga también las sedes de un elevado número de federaciones deportivas vizcaínas.

Durante 2027 se van a destinar 200.000 euros para obras de reparación y mantenimiento del Edificio de frontones y Kirol Etxea.

Se pretende consolidar Meaztegi Golf como un referente en la práctica de este deporte, y potenciar la práctica del mismo entre los más jóvenes, para lo que se están realizando determinadas actuaciones e inversiones destinadas a la mejora de las condiciones para la práctica del golf por parte de las personas usuarias.

Para ello, durante el ejercicio 2027 se llevarán a cabo diversas obras de mejora de las instalaciones, así como renovación de maquinaria, con una inversión prevista de 700.000 euros.

– Vivienda

La Sociedad mantiene la actividad de gestión de vivienda, habiendo desarrollado en el pasado una intensa actividad en la promoción con un total de 880 viviendas vendidas de forma directa y otras 343 viviendas vendidas a través de cooperativas. Esta actividad se realiza en colaboración con los ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia.

Dada la actual realidad económica y social y a la vista de la demanda de vivienda en alquiler, se posibilita también el acceso a las viviendas mediante la modalidad de arrendamiento con opción de compra, o simple arrendamiento en alguna promoción.

Azpiegiturak, gaur egun, 169 etxebizitza ditu errentan hartzeko, zuzenean edo Alokabiderekin sinatutako hitzarmenaren bidez, eta % 100eko okupazioa du gaur egun. Gehienak erosteko aukeradun alokairu kontratuak dira eta Bizkaiko geografiako zenbait udalerritan banatuta daude. Horrela etxebizitza bila dauden pertsonen beharrei erantzuten zaie.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, EUDELek, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak "Familia-etxebizitzetako kaleratzeak direla-eta, ahultasun egoerak hautemateari buruzko lankidetza hitzarmena, gizarte-izaerako neurriak hartzeko" delako hitzarmena, "Etxegabetze kasuetarako jarduera protokoloa" izenez ere ezaguna, sinatu zuen. Hori kontuan hartuta, Lurralde Historikoko udalerrien eskura jarri zuen Sozietateak egun duen etxebizitza-parkea.

Azpiegiturak dispone actualmente de un total de 169 viviendas disponibles para su arrendamiento, de forma directa o a través de convenio firmado con Alokabide, con una ocupación actual del 100%. Son, en su mayor parte, arrendamientos con opción de compra, y las viviendas se hallan distribuidas en diversos municipios de la geografía vizcaína, atendiendo así las necesidades de las personas en busca de vivienda.

Por otro lado, y en base al "Convenio de colaboración sobre detección de supuestos de vulnerabilidad con ocasión del lanzamiento de vivienda familiar para posibilitar la adopción de medidas de carácter social", también denominado "protocolo de actuación en caso de desahucio", firmado por el Gobierno Vasco, EUDEL y el Consejo General del Poder Judicial, al que se adhirió la Diputación Foral de Bizkaia, se puso a disposición de los municipios del Territorio Histórico el parque de viviendas con el que actualmente cuenta la Sociedad.

Beste jarduketa batzuk.

Azpiegiturak enpresaren asmoa da bere jabetzakoak diren eta baldintza egokiak betetzen dituzten eraikinak energia-aprobetxamendua optimizatzeko ekipamenduz hornitzea, bai eta ibilgailu elektrikoa ezartzeko hornidura-puntuez hornitzea eta eguzki-panelen instalazioa ere. Horretarako, 2024an, 2025ean eta 2026an 1.000.000 euro inguruko inbertsioa egin du guztira, eta 2027an 300.000 euroko inbertsioarekin jarraitzea aurreikusten da.

Sozietateak Ugaldebietako zerbitzugunea ustiatzen jarraitzen du. Zerbitzu-estazio bat du A-8 autobidearen alde banatan, Abanto udalerrian.

Otras Actuaciones

Azpiegiturak pretende dotar los edificios de su propiedad, que reúnan las condiciones adecuadas, de equipamientos destinados a optimizar el aprovechamiento energético, así como de puntos de suministro dirigidos a la implantación del vehículo eléctrico e instalación de paneles solares. Para ello, se ha realizado en los años 2024, 2025 y 2026 una inversión de aproximadamente 1.000.000 euros, y se prevé continuar en 2027 con una inversión de 300.000 euros.

La Sociedad mantiene la explotación del área de servicio de Ugaldebieta, que cuenta con una estación de servicio a cada lado de la autovía A-8 en el término municipal de Abanto.

Kapitalaren aurrekontua

- 2027 ekitaldirako aurreikusitako inbertsioak, ibilgetu ukiezinean, ibilgetu materialean eta higiezinetako inbertsioetan, hurrengoak dira:

Presupuesto de capital

- Las inversiones previstas en el inmovilizado intangible, material e inversiones inmobiliarias para el ejercicio 2027 son las siguientes:

- Meaztegi Golf.....700.000€
- Instal. teknikoak eta beste Ib. Mater.: ..135.000€
- Ispasterreko Elkartegia.....4.000.000€
- Elkartegietan beste inbertsioak:.....1.030.000€
- Egoitza Abadiñon:.....1.400.000€
- Egoitza Markinan:.....1.185.000€
- Egoitzetan inbertsioak : .....2.700.000€
- Bizkaia Dorrea–Showrooma:.....1.860.000€
- Etxebizitzetan Inbertsioak:.....425.000€
- Lurzoruen kudeaketa: ..... 450.000€

Inbertsio horien finantzaketa akziodun bakarraren kapital gehikuntza bidez, subentzioen bidez eta norbere ekarpenen bidez egingo da.

Taldeko enpresei egindako inbertsioei buruz, ez dira ordainketak aurreikusi 2027an.

2027ko abenduaren 31rako aurreikusitako epe luzerako zorpetzearen zertarakoa honako hau da:

- Epe luzerako finantziazioa: .....0 €
- Epe luzerako zorrak, guztira, kreditu-erakundeekin:.....0 €

Epe laburrera birsailkatua 2027.12.31n: .....0 €

- Meaztegi Golf .....700.000€
- Intal. técnicas y otro Inmov.: .....135.000€
- Elkartegi Ispaster.....4.000.000€
- Otras inversiones Elkartegis.....1.030.000€
- Residencia en Abadiño:.....1.400.000€
- Resid. y CD. en Markina:.....1.185.000€
- Inversiones en Residencias: .....2.700.000€
- Torre Bizkaia–Showroom:.....1.860.000€
- Inversión en viviendas:... .....425.000€
- Gestión de suelos .....450.000€

Se ha previsto financiar dichas inversiones mediante ampliación de capital procedente del accionista único, subvenciones de capital y financiación propia.

En lo que respecta a inversiones en empresas del grupo, no se han previsto desembolsos en 2027.

El destino de los préstamos a largo plazo previsto al 31 de diciembre de 2027 es el siguiente:

- Financiación largo plazo: ..... 0 €
- Total Deudas largo plazo con entidades de crédito: ..... 0 €

Reclasificado a corto plazo el 31.12.2027:...0 €

Merkataritzako Foru Sozietateak
Azpiegiturak, ABMP
Sociedades Mercantiles Forales
Azpiegiturak, S.A.M.P.

2027ko Kapitalaren aurrekontua
Presupuesto de capital 2027

Inbertsioak / *Inversiones*	Zenbatekoa *Importe*	Finantzaketa / *Financiación*	Zenbatekoa *Importe*
Doitutako ekitaldiaren emaitza negatiboa *Resultado negativo del ejercicio ajustado*		Doitutako ekitaldiaren emaitza positiboa *Resultado positivo del ejercicio ajustado*	55.909
Ibilgetu ukiezinaren eskuratzeak *Adquisiciones inmovilizado intangible*		Akziodunen ekarpenak *Aportaciones de los accionistas*	4.710.000
		F.A.P.H.S.en akziodunak *Accionistas S.P.F.*	4.710.000
Ibilgetu materialaren eskuratzeak *Adquisiciones inmovilizado material*	11.980.000	F.A.P.H.S.etik kanpoko akziodunak *Accionistas fuera S.P.F.*	
Ondasun higiezinetako inbertsioak eskuratzea *Adquisición de inversiones inmobiliarias*	1.905.000	Kapitaleko dirulaguntzak *Subvenciones de capital*	2.700.000
Ibilgetu finantzarioaren eskuratzeak *Adquisiciones inmovilizado financiero*		F.A.P.H.S. diren erakundeak *Entidades S.P.F.*	2.700.000
Akzio propioak eskuratzea *Adquisición acciones propias*		F.A.P.H.S.etik kanpoko erakundeak *Entidades fuera S.P.F.*	
Kapital-murrizketak *Reducciones de capital*		Epe luzeko zorrak *Deudas a largo plazo*	
Dibidenduak (emaitzen aplikazioa) *Dividendos (aplicación de resultados)*		F.A.P.H.S. diren erakundeak *Entidades S.P.F.*	
E/l zorrak ezeztatzea edo epe laburrera intsuldatzea *Cancelación o traspaso a c/p de deudas a L/p*		F.A.P.H.S.etik kanpoko erakundeak *Entidades fuera S.P.F.*	
		Ibilgetua besterentzea *Enajenación de inmovilizado*	534.999
Epe luzerako horniduren aplikazioa *Aplicación de provisiones a largo plazo*		Ibilgetu finantzarioak ezeztatzea edo epe laburrera intsuldatzea *Cancelación o traspaso a c/p de inmovilizaciones financieras*	
		Epe luzeko hornidurak *Provisiones a largo plazo*	
Aktibo korrientearen gehikuntza *Aumento de activo corriente*		Aktibo korrienteare murrizketa *Disminución de activo corriente*	9.182.169
Pasibo korrientearen murrizketa *Disminución de pasivo corriente*	3.298.077	Pasibo korrienteare gehikuntza *Aumento de pasivo corriente*	
Guztira *Total*	17.183.077	Guztira *Total*	17.183.077

2027ko Ustiapen aurrekontua
Presupuesto de explotación 2027

Zuzkidurak / *Dotaciones*	Zenbatekoa *Importe*	Baliabideak / *Recursos*	Zenbatekoa *Importe*
Izakinen murrizketa *Reducción de existencias*	500.000	Negozio-zifraren zenbateko garbia *Importe neto de la cifra de negocios*	90.543.537
